

Txanponak

Onintza Irureta Azkune*

Egunero eskuartean ditugu.
Kafea hartu nahi badugu,
ogia erosteko edota auto-
busez ibiltzeko;
badaezpada ere beti poltsiko-



Ez da zaila txanponak zer-
tarako balio duten azal-
tzea. Ondo baino hobeto
dakigu. Txanponei es-
ker erosten dugu eta baita saldu
ere. Gizakia historian zehar beti
aritu da nolabaiteko salerosketan,
baina ez du beti txanpona
erabili, ezta gutxiagorik ere. As-
koz geroago otu zitzaion gizakia-
ri txanponez baliatzea.

Txanpona trukean oinarritzen
da; txanponaren truke, izan ere,
balio bereko beste zerbait jasotzen
dugu, dela janaria, arropa,
lan-tresnak eta abar. Gizakiok
adostasunera iritsi gara salerosketan
txanponen bidez egiteko.
Horregatik izan du arrakasta
truke-sistema horrek.

Esan dugu, ordea, sistema bera
ez dela beti erabili. Antzina trukean
ez zen txanponik erabiltzen.
Euskal Herrian bertan, duela
gutxira arte baserri-giroan oiloak,
barazkiak, arrautzak eta olioak
erabili dira trukean. Baserrian

behinik behin, dirua eskutan oso
gutxi erabiltzen zen eta baserrian
sortzen ez zutena etxeko pro-
duktuen truke eskuratzen zuten.

Txanponaren aurrekaria

Europar eta Ekialde Ertainean
duela ia 4.000 urte txanponaren
egiteko bera zuen zerbait erabil-
tzen zuten: kobrezko lingoteak.
Gure arbasoek kobrearen truke
beharrezkoa zutena erosten zuten.
Kristo aurreko 700. urtean
ausartu zen gizakia lehen txanpo-
nak egitera. Kondairaren arabera,
Asia Txikiko mendebaldean,
Lydia izeneko herrian egin zen
lehen txanpona.

Txanpona egiteko erabilitako
teknika esanguratsua da guretzat;
gaur egun ere oso antzeko mo-
duan egiten baitira txanponak.
Lydiako asmatzaileek urrea auke-
ratu zuten txanponak egiteko.
Lehenengo, urre-pieza hartu eta

puska txikitik egiten zuten,
puska bakoitza pisatuz. Hurrengo
urratsa sakonera txikiko buztin-
ezko molde biribilak egitea zen.
Urre-puskak sakonera horretan
sartzen zituzten eta urrea berotu
egiten zuten. Urtutako urreak
buztinezko moldearen hutsune
osoa betetzen zuten. Urre-puska
hozten zenean atera egiten zuten
eta pieza bakoitza ingudearen
gainean jartzen zuten. Trokelaren
bidez, urrezko txanponari
zigilua jartzen zioten. Batzuek
erregearen edo erregearen iru-
dia izango zuten eta beste ba-

Kristo aurreko bostgarren mendeko txanpona
da argazkikoa. Atenasko txanpon horrek lau
drakma balio ditu eta hontza grabatu diote
zilarrezko txanponari.





Ez dira ez txanponak iturria irekita ateratzen. Hala ere, erruz erabiltzen dugu txanpona eskuarteetan. Txartelak ere, azken aldian asko ugaltu dira eta agian egunen batean, txanponak desagertu egingo dira, nork dakil!



tzuek lurraldea adieraziko zuten. Zigiluaren helburua oso garrantzitsua zen: urrearen pisua eta purutasuna bermatzen zuen zigiluak. Urrezko txanponak erabiltzen hasi baziren ere, txanpon bidezko merkataritzarik ez zen sortu. Urrezko txanpon horiek dira lehenak, baina erabiltzaileak aurkikuntzaren garrantziaz ez ziren ohartu.

Txanpon bidezko merkataritza Kristo aurreko bigarren mendean hasi zen. Erromatar Inperioaren botereari esker, berehala hedatu zen txanpona Europan zehar. Urrezko txanponak egiteaz gain, balio gutxiagokoak ere egiten hasi ziren; zilarrezkoak eta brontzezkoak, esaterako.

Txanponak egitearen lanbidea gero eta hobeto ikasten zuten bitartean, txanpon faltsuak egiten ere trebatu zen asko. Faltsifikatzaile batzuek trokel faltsuak egiten zituzten eta molde horiekin egiten zituzten txanpon guztiak. Beste batzuek benetako txanpona hartu eta molde prestatzen zuten; gero molde horretan egiten zituzten txanponak. Bi eratarira ere, nahiz eta faltsifikatzailea oso trebea izan, txanpona ondo

aztertuz gero laster igar zitekeen faltsua zela.

Nola egiten dira txanponak?

Txanponak egiteko prozesua sinplea da funtsean, baina txanponaren arabera, urrats batzuk aldatu egiten dira; batzuetan gehituz eta beste batzuetan gutxituz. Txanponak egiterakoan ezinbesteko urratsak ondokoak dira:

- Galdaketa: gaur egun erabiltzen ditugun txanponen materialek oso balio gutxi dute, metal merkeak erabiltzen baitira. Txanpona egiteko aukeratutako metala zein aurreko prozesuetan erabilitako lingoteen puskak labean sartzen dira eta nahasketa labean urtzen da. Metal urtua moldeetara isurtzen da ondoren, lingote-itxura har dezan.
- Ijezketa: metal-lingoteak arrabolen artean pasaratzen dira ijeztu ahal izateko. Ijezketaren bidez, lingoteen bolumena txikiagotzen da, behar den neurria lortu arte. Horrez gain, lingoteei ertzak ere moztzen

dizkiete. Batzuetan mozketa eta ijezketa lingoteak berotu eta gero egiten dira eta beste batzuetan, berriz, hotzean.

- Bobinak: lingoteek hurrengo urratsetan itxura galduko dute eta metala bobinatan bilduko da. Bobinek ere tratamendu berezia jasotzen dute, metala txanpon bihurtu aurretik.
- Zizailaketa edo mozketa: azaldu dugun bezala, prozesuaren hasieran lingoteei ertzak moztzen zaizkie ijezketarako prestatzeko. Urrats honetan, aldiz, mozketen bidez bobinako metal-zintak txanpon-itxura hartzen du. Egia esan, ezin zaio txanpona deitu metal-puska horri. Oraindik ez du zigilurik, baina badu jada txanpon-itxura. Behin metalak txanpon-itxura hartu duenean, ijezketa eta mozketa ondoz soberan gelditu diren metal-puskak prozesu osoaren abiapuntura eramaten dira, labera, hain zuzen ere.
- Zigilua: urrats honetara heldutako txanponarekin dendara joango bagina ez genuke aurpegi goxorik ikusiko. Zigilurik gabeak dira eta beraz, baliorik gabeak. Azken urrats honetan zigilua jartzen zaio orain arte metal-puska besterik izan ez denari. Txanpona erabiltzeko prest dago.

Une honetan mundu osoan zehar, makina-txanponak txanponak sortu eta sortu ariko dira. Hala ere, ezin ziurta daiteke makina horiek txanponak egiten luzaro segituko dutenik. Gero eta gehiago erabiltzen dira mota anitzetako txartelak eta txartel horiek zein bileteak, agian, tokia kenduko diote txanponari. Beharbada, hemendik laster ezin abestuko dugu "Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa..."



* ZETIAZ - Elhuyar